

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Eguaztena / 2004ko apirilaren 7a / 669. zenbakia



**ITURBIDE EGOITZA
ERALDATU EGINGO DUTE**

ARKITEKTO TALDE BAT PROIEKTUA IDAZTEN DABIL

ORAIN ETA HEMEN: EMAKUMEEN KONTRAKO ERASOAK SALATZEN/7 • KIROLA: TALDEEN OPORRALDIA/8-9

ARGAZKIAK: IKER BARANDIARAN, AZALA: ALEX AZKARATE

EDERTASUN GIDA/24




IRAGANA GOGORATUZ

Itzala utzi duten lantegiak: Zerrajera, Elma...



Ikustekoa!

IRAGANA GOGORATUZ
Goienak eta Fagor-ek lankidetzan egindako saioa



Apirilaren 20an, martitzena,
20:30ean eta 22:30ean

KALEINKESTA/ Leitzako gaztien moduko kasuekin justiziak siñisgarritasune galtzen dau?




GORKA JAUREGI
Langillie



LOURDES ALEU
Langillie



MAITE SANPEDRO
Ikaslie



JOXE URIBETXEBARRIA
Langillie



JESUS ROMERO
Langillie



LIBE ZUBIA
Langillie

Bai. Argi dau justiziak ez eukela arrazoirik horreik gaztiok bi urtez kartzelan eukituko. Holakuek ikusitte zalantziakin begiratzen dutzegu justiziari, eta siñisgarritasune galtzen dau.

Baietz uste dot; pasau danak erakusten dau justiziak ez dauela ondo funtzionetan. Neuk pentsetan dot holako detenziñuek egin aurretik gauzak hobeto konprobau biher diela.


Bai. Neuk ikusten dotena da epailiek Euskal Herriko gaztiekin jolasten dabitze-la, iñungo proba barik sartzen daue-eta kartzelan. Eta oingo adibidiek erakusten dau hori argi eta garbi.

Bai. Gauzak beste modu baten egin biher die; holako erabakixek oiñarri hobiakin hartu biher die, gauzek konprobaute... Ezin daue euki eurek gure daue-na egitteko askatasune.

Baietz uste dot. Detenziñuek ezin die egin egittearren, hori katxondue da. Kasu horrek erakusten dau edozein sartu leikiela kartzelan, eta gero azertau egitten badaue, ba edarto!

Neuretako justiziak aspal-di galdu euen siñisgarritasune. Oingue ez da kasu barrixe, beste kasu asko egon die: komunikabidien itxiera... Oinguen, baiñe, oso agerixen geratu da.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK 'HARRI-JASOTZAILE' EZEZAGUNAK Irakurle fin batek aditzera eman digu orain dela aste pare bat ezezagun batzuek Lau-bideko aparkaleku inguruan dagoen eskultura biribila lekuz mugitu zutela. Argazkia egitera joan ginenean harri erraldoiak han jarraitzen zuen, eta gure irakurlearekin bat egiten dugu eskaera horretan: dagokionak harria bere lekura bueltan eraman dezala, badaezpada.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7

KIROLA / 9

KULTURA / 11

Txus Goikoetxea gose greban

Txus Goikoetxea preso arrasatearra gose greban dago martxoaren 15a ezker, Albaceten.

Realaren futbol txapelketa

Zapatu arratsaldetan, Osasunak eta Gipuzkoako konbinatuak jokatuko dute Atxabalpen.

Martxe Aranari elkarrizketa

Martxe Arana margolariak erakusketa ipini du Arregi gale-rian. Elkarrizketa egin diogu.

ASTEKODATUA

24

BIDER ANTOLATU DUTE DOKE TXAPELKETA

SUDC elkarteak hogeita lau bider antolatu du herriko elkarte gastronomikoen arteko doke txapelketa. Etzi, egubakoitza, jokatuko dute Kondekuan, Monterron azpian, 10:00etan hasita.

BESTEKEESANA

Fagorrek beste enpresen aldean oso bestelako helburu eta balioak ditu. Gure herrian aberastasuna eta enplegua sortzea daukagu lana, baina ezin digu merkatuaren globalizazioari ez ikusiarena egin. Enpresen deslokalizazioak guri ere eragiten digu. Maila handiagoko produktuak ekoitzi beharko ditugu, negozio berriak bultzatu eta osagaiak Eurogunetik kanpo erosteko plataforma ahaltsua bultzatu. (...) Ezin ditugu hemengo lantegietan balio batzuk bultzatu eta nazioartean beste batzuk. Langileekiko errespetua ziurtatu behar dugu. Kanpoko langileen eskuhartzea nola bermatu aztertu behar dugu, sakon: etekinak nola banatu... MCC aspaldi dabil kooperatiba gisa dituen ezaugarriak esportatu guran"

PABLO MONGELOS
'BERRIA'/2004-04-04

HERRITARRENBERBAK/ Antton Mendizabal



Martinez Lizarduikoa atxilotu dute

Osteguneko albisteekin batera enteratu nintzen. Euskal kulturaren pertsonen aurkako ohiko albisteen artean, Martinez Lizarduikoa, lehenengo bahitua eta gero atxilotua izan zela entzun genuen. Laguna handia izanik, une horretan poliziek berari eragin ziezaioketen torturaz kezkatu nintzen. Horiek ere ohikoak dira, baina gu ez gara ohitzen. Lizarduikoa ez da ez Estatuaren dominazioaren aldeko unibertsitate publiko batek eskatzen duen irakasle espainiarzale, aprobetxategi eta ezdemokratiko horietako bat. Lizarduikoa, aldiz, Euskal Herria maite du. Bestelako irakasle eta ikerlaria da Lizarduikoa.

Beste publikotasunaren aldekoa da bera. Unibertsitatea, herria eta herrien beharrak lotu nahi ditu; herritar xumeekin gainera. Herritarrekin batera eta Euskal Herriko kultura etxe gehienek daukate

irakasle eredugarri honen jardueraren berri. Ikerlari eta zientzialari aparta, berak egindako *Euskal Zibilizazioak* Euskal Herriko historiaurrea antzinako Europako zibilizazioarekin uztartzen du. Korrontearen aurka, gizadiko pentsalari handi guztiek egin duten moduan, *Euskal Zibilizazioa* liburua garai hauetako aitzindari-tzan kokatzen da. Lan horrek oinarri, gorputza eta arima ematen dizkio gure herriari. Antzinako laino ahaztuetan egon den gure historia ikertu du, eta bide batez etorkizunerako norabide argia eman dio gure herriari eta kulturari.

Martinez Lizarduikoaren aurkako atxiloteta euskal kulturen aurkako beste eraso bat besterik ez da. Demokrata larrua daukaten hipokrita, konplize eta genozida horiek isilpean egin dutena. Gure herri zapaldu honetan ez dago justiziarik. Eta ez dugu espainiar justizian sinisten.

"Lizarduikoa ez da Estatuaren dominazioaren unibertsitate publiko batek eskatzen duen irakasle bat"

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Imanol Elortza
Amaia Mundiñano
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereizibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia
LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUAZTENA, 7**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUENA, 8**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- EGUBAKOITZA, 9**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- ZAPATUA, 10**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- DOMEKA, 11**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- ASTELEHENA, 12**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- MARTITZENA, 13**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- EGUAZTENA, 14**
Azkoaga, Iturriotz 17. 943 79 79 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERITXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIK**
SOS Delak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaieguetan. . . egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea. 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIARIK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZIA**
Arrasate 943 79 71 99
- SUHILTZAILAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa. 900-40 05 23
943-79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia | San Andres eliza |
| Zapatua
19:00 (elebiduna) | Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza | Santa Teresa eliza |
| Zapatua
19:00 (elebiduna) | Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia | Santa Marinako eliza |
| Zapatua
19:00 (elebiduna) | Jai egun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

ELKARTEEN DOKE TXAPELKETA
Etzi, egubakoitza, Elkarte Gastronomikoen arteko 24. Doke Txapelketa egingo dute, goizeko hamarretan, Kondekuan, Monterron azpian.

'IRAKURKETA IRUDITAN'

Apirilaren 19tik 30era bitartean, *Imágenes para leer* leloa duen erakusketa ipiniko dute Arrasateko Udal Liburutegiko erakusketak aretoan.

KIROL ZERBITZUAK

Apirilaren 8tik 12ra bitartean, Musakolako kiroldegia honako ordutegiak izango ditu: zerbitzu orokorrak, 08:30etik 13:30era; eta igerilekuak, 09:00etatik 13:30era. Iturripeko kiroldegia eta Uarkape pilotalekua itxita egongo dira.

FILM ESKAINTZA

Apirilaren 16an, *Thirteen* filma emango dute zineklubean, 20:30ean. Apirilaren 17an eta 18an, 19:00etan eta 22:00etan; eta 19an, 20:30ean, *Cuando menos te lo esperas* filma emango dute. Apirilaren 18an, *Bahia mágica* filma emango dute, 17:00etan.

HAINBAT IKASTARO

Basabelar elkarteak energia fotoboltaikoaren eta sendabelarren gaineko ikastaroak antolatu ditu.

AEDren AGENDA

MAKILLAJE IKASTAROA

Apirilaren 24an, AEDk makillaje ikastaroa egingo du. 11:00etatik 14:00etara izango da. Eman izena apirilaren 22a aurretik. 12 euro ordaindu beharko dira. AEDkoek eta 18 urte baino gazteagoek, 10 euro.

XVII. ARRASATE LEHIAKETAK

Apirilaren 22an, eguena, izango da sari banaketa, 18:00etan, Monterronen.

URBANOEN ORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira

08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.


Eroskitik Gorostizara

08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Froski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Museo industrialaren proiektua idatzi zuten

Udalak kontratatutako langile batek, Isabel Aramendiak, museo industrialaren proiektua idatzi zuen. Aramendik hiru faseko plana aurkeztu zuen. Lehenengo fasean inbentarioa egin eta galtear zeuden materialak jaso gura zituen. Aurrekontuen baldintzapean zegoen proiektua.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Momorro"



Zomorroa.
— *Ortuko gauzai gero ta momorro geixau eitte jako.*

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 2	0 °C
MAXIMOA Zapatua, 3	20 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	3,6 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 31	17 °C	9 °C	- l/m²
Eguena, 1	16 °C	5 °C	3,6 l/m²
Egubakoitza, 2	17 °C	0 °C	- l/m²
Zapatua, 3	20 °C	6 °C	- l/m²
Domeka, 4	20 °C	3 °C	- l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Elkarrizketak emango ditugu Aste Santuan

Apirilaren 8tik 19ra jai izango dute Arrasate Irratiko esatariek; hala ere, irratia ez da isilik egongo. Herriko irratia pizten duzenok azkenaldian egindako elkarrizketa interesgarriekin osatutako saioak entzuteko aukera izango duzue, 10:00etan hasita. Estitxu Fernandez, Anjel Alkain, Olatz Zugasti eta Roberto Mosorekin egindako solasaldiak eskainiko ditugu. Baina beste elkarrizketatu batzuen hitzak ere izango dira entzungai: *Juventudes Via-*

torianas liburuaren gainean azalpenak emango ditu liburuaren egile Iñaki Berebizbarrek; Txuma Murugarren kantariak Arrasaten lan egiten duela kontatuko digu; Oskar Arana arrasatearrak Jokin Zaitegi beka eskuratu zueneko azalduko digu; eta Ibon Anterok Ekuadorren izandako esperientzia gogoratuko digu. Gainera, Espe Lizarralde eta Eusebio Iñarrak *Kontu kontari* atalean kontatutako hainbat istorio jasotako ditugu. Gai nontzean, musika izango da.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

APIRILAREN 8tik 18ra

10:00 Elkarrizketa bilduma: Estitxu Fernandez; Anjel Alkain; Olatz Zugasti; Roberto Moso; Juan Karlos Irizar; Txuma Murugarren; Iban Vazquez...
Gainontzeko orduetan, musika.

APIRILAREN 19tik 23ra

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
10:00 Euskadi Irratiko albistegia
10:06 Igo Autobusera magazinaz: elemerideak, elkarrizketak, kirolak...
11:00 Euskadi Irratiko albistegia
11:06 Igo autobusera magazinaz
11:30 Arrasate Irratiko albistegia
11:40 Igo autobusera magazinaz
12:00 Euskadi Irratiko albistegia
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak.
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
17:00 Izarren ordua.
19:00 21:00-23:00 Albistegi laburra

MARTITZENA
19:10 Iluntzean

EGUENA
19:10 Noraezean

EGUBAKOITZA
19:10 Planning Prest

ASTEABIHITZETAN

Gaeko autobusen zerbitzuak areagotu

Joan den zapatuan hasi zuten gaeko autobusen zerbitzu berria. Debagoienari dagokionez, areagotu egin dituzte Eibar eta Eskoriatza bitartean egiten dituzten zerbitzuak.

Neguko ordutegian, zapatu gauetan ibiltzen ziren autobusak, baina orain egubakoitzetan ere ibiliko dira. Gainera, autobus gehiago ibiliko dira, eta inguruko jai patronaletan ere autobusak jarriko dituztela aurreratu dute.

Telefono zenbakien iruzurrak

Joan den eguaztenean, herritar batek salaketa jarri zuen Ertzaintzan telefonoz iruzurra egin ziotelako. Eta, Ertzaintzak esan zion ez dela bakarria izan. Herritarrari esan zioten Monterrey garraio enpresatik deitzen ziotela, eta berehala jaso beharreko gutun bat bidali behar ziotela baina ez zeukatela bere helbidea. Horregatik, 807 zenbakiarekin hasten zen telefono zenbaki batera deitzeko eskatu zioten.

Telefono horretara deitu, eta inork ez zion erantzun. Musikarekin izan zuten hainbat minutuz, bertan jarraitzeko eskatu. Telefonoa eseki eta berriro deitu zuen. Orduan, Jaengo hestebeteen gaineko promozio baten berri eman zioten. Emakumeak argi utzi zuen berak ez zuela gura hestebeterik, baina konturatu zenerako 20 minutu zeramatzan telefonoan.

Autoenplegu ikastaroak abian

Mankomunitateak enpresa bat sortu gura duenarendako autoenplegu ikastaroak antolatu berri ditu. Ikastaro horretan izena emateko epea zabaldu dute, eta apirilaren hasiko dituzte eskolak.

Mankomunitateak urtero antolatzen du ikastaro hori, eta norberaren enpresa nola sortu erakusten dute bertan. Dagoeneko hainbat lagunek erakutsi dute ikastaroan esku hartzeko asmoa, baina oraindik bada izena emateko aukera.



Giro aparta Goikobaluko Giokela festan

Arrasateko Goikobalu abesbatzak 15 urte bete ditu aurten, eta urteurrena ospatzeko abesbatzakoak Italiara joateko dirua dabilta batzen. Asmo horrekin egin zuten Giokela festa zapatu arratsaldean, eta dirua batzeaz gain, giro paregabea jarri zuten Herriko Plazan.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Berdintasunaren alde

Aste honetan jakin dugu Espainiako Estatuko presidente Jose Luis Rodriguez Zapaterok zortzi emakume ministro izendatu dituela. Batzuek izugarriko erabaki positibo moduan hartu dute; beste batzuek, berriz, itxurakoa besterik ez dela. Itxuraz, zerbait bada, baina kontua da ea emakume horiek benetako erabakiak hartzeko gaitasuna duten edo

ez, eta ea benetan berdintasunaren aldeko pausuk ematen dituzten edo ez.

Bestetik, astean egunkari baten irakurri berri dut Espainiako Estatuko 2003ko kirolari onena Joanne Somarriba izan dela. Somarriba izan da emaitza onenak lortu dituen kirolaria. Ezagun da txapelketak finantzatzeko (izan) dituen arazoak eta beste kirolari batzuekin

alderatuz, hartu duen izena eta ospea.

Arrasaten, badira emakumeen eta oro har berdintasunaren alde apustu eraginkorrrak eta tinkoak egiten dituztenak. Emakumeen Kontseiluaz eta Emakume Sailaz ari naiz. Emakume Txokoan eta kanpoan ekintza mordoak egiten dihardute etengabe. Astelehenean emakumeen kontrako erasoak salatzen kontzentrazioak egin zuten. Halako ekimenak dira eraginkorragoak.

ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

OPOR USAINA EGON DA ASTEAN, ETA DAGOENEO GUK ERE HARTU DITUGU OPORRAK

Joan den egubakoitza ezker hainbat arrasatear oporetan daude. Irakasleez eta bestelakoez gain, umeak izan dira kaleko protagonista. Guk ere hala harripatu genituen horietako batzuk, baloiari ostikoak ematen asper-asper eginda, argazkia noiz egingo genien zain. Arrasatear gehienek gaur, eguaztena,

hartuko dituzte oporrak, baita guk ere. Apirilaren 19ra arte ez gara lanera etorriko eta 23an jasoko duzue opor osteko lehenengo ARRASATE PRESS. Hemengo lankideok nora joango garen ez dizuegu kontatuko, baina arrasatear gehienek eguzki bila joango direla esan digute. Ondo pasatu! /I.B.

TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

OSORIK PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

ELKARRIZKETA

ISABEL ARAMENDIA/ERAKUSKETA INDUSTRIALAREN ARDURADUNA ETA LIBURUAREN IDAZLEETAKO BAT

“Egia da aurrera egiteko ahalmen hori beti egon dela presente Arrasateko gizartean”

UBANE MADERA

Arrasateko industriaren eta langileen gaineko liburua argitaratu berri dute. Hori aprobetxatu, eta liburua-
ren eta oro har industriaren gaineko elkarrizketa egin dugu. Liburuaren egileetariko batekin izan gara: Isabel Aramendiarekin.

Noiz sortu zen ideia?

Orain dela hamar urte baino gehiago hasi ginenean gure ondarea berreskuratzen, konturatu ginen ahozko testigantzak ere berreskuratu egin behar genituela. Baina urte batzuk pasatu ziren hori egin arte. Pertsona bat kontratatu zuten horretarako, Leire Parra lankidea; hura hasi zen lan hori betetzen: elkarrizketak egin eta haien transkribapenak egiten. 2001-2002an izan zen. Orokorrean, ahozko 75 testigantza hartu genituen. Ahalegindu ginen era guztietakoak hartzen: hainbat enpresatan ibilitako langileenak, gizonenak zein emakumezkoenak, hemengoak, kanpotik etorritakoak... Ahalik eta zabalena izateko. Hori egin ondoren konturatu ginen informazio asko zegoela eta pentsatu genuen informazio hori zela kaleratu. Lehenengoko ideia izan zen erakusketa aretoan bertan bi interaktibo ipintzea. Interaktiboak dira bi ordenagailu eta bakoitzean ahozko hamar testigantza ipini genituen. Aurreneko interaktiboa industria modernoaren sorreraren sailean ipini genuen; eta denborarekin bigarrena ipini genuen, kooperatibismoaren arloan. Horrela, denetara hogeitaz hamar testigantza ipini genituen. Hain zuzen ere, gainerako testigantza guztiak plazaratzeko jaiotzen liburuaren ideia.

Industriaren garapena bestelako lekuetan ere gertatu zen ala Arrasaten berezia izan zen?

Ez. Lehenengo, aipatu behar dugu langileek beti izan duten garrantzia herria eraldatzeko. Hemengo langileek beti izan dute gaitasun hori. Baina industriarena Arrasaten eta beste toki batzuetan ere gertatu zen. Hori bai, kontuan izan behar dugu Arrasate izan zela Gipuzkoan toki garrantzitsu bat. Eibarrekin batera, hemen sarrailagintzaren inguruan industria garrantzitsua sortu zen.

Dena dela, Arrasaten industriak betidanik izan du garrantzi handia. Bada horretarako arrazoirik?

Ba begira, bai. Guk, adibidez, Erakusketa Industrialaren hasten dugu XIII. mendean. Izan ere, XIII. menderako arrasatearrak ezagunak ziren oso kalitate oneko altzarua ekoizten zutelako. Hortaz, zuk

diozun moduan, hau ez da XIX. edo XX. mendeko kontua; aspalditik datorren kontua da.

Eta gaur egunera etorrira, lehen Eibar aipatu duzunez, Eibarren industriak behera egin du. Arrasaten ez, hemen kooperatibismoa sortu da...

Hori esan behar nizan. Kooperatibismoari zor diogun zera bat izango litzateke hori. Bestelako industriei begiratzen badiegu konturatzen gara gainbehera gertatu zela lantegi txikietan edo Union Zerrajeran bertan. Baina hemen, mugimendu kooperatiboa egonenez, esan dezakegu trantsizioa izan zela, pasatu zela pisu handiena kooperatiben eskuetara.

Arrasateko mendetan erakutsi duen aurrera egiteko ahalmen hori igarri egiten da arrasatearren artean?

Igarri ez dakit igartzten den. Baina egia da hasiera-hasieratik gure gizartean presente egon den gaitasun bat dela. Lehen komentatzen genuen moduan, arrasatearrak XIII. mendean aitzindari izan ziren euren teknikak eta metodoak erabiltzen. Eta sarrailagintzan, adibidez, Union Zerrajeran, garai jakin batean aitzindari izan ziren modelo batzuk-eta ekoizten. Kooperatibismoa hasi zenean, berriro berrikuntzan bete-betean sartu ziren eta erakutsi zuten ikeritzeko eta berrikuntzako kapaz zirela berriro. Ikusten dugu ahalmen hori bizirik dagoela beti.

Liburuaren gainean berba eginez, ahozko testigantza ugari jasotzen dituzue, hortaz, ari na izango da irakurtzeko...

Bai. Behintzat ahalegindu gara hori lortzen. Ez dakit lortu dugun. Hori irakurleari dagokio esatea. Edozelan ere, esan beharra dago liburuan ez ditugula istorio berriak kontatzen, betiko istorioak kontatzen dira, baina nik esaten dut beste modu batera daudela kontatuta. Zergatik? Eurek kontatzen dituztelako, protagonistek. Guk egin duguna da ezagutzen genuen historia hori ardatz hartuta euren testigantzekin hori hornitzen joan. Eta horrez gainera, ahalegindu gara, ahal genuen neurrian, aspektu horiek argazkiekin-eta girotzen. Horrek bai ematen diola liburuari nolabaiteko arintasuna.

Arrasateko familia asko dago inplikaturik liburuan, ezta?

Bai. Azken batean guk langile jakinak elkarrizketatu ditugu, baina langile horien inguruan familiak daude. Eta gainera, kasu askotan, zoritxarrez, elkarrizketak egin genituenetik gaur arte, horietako batzuk hil egin dira. Hortaz, elkarrizketak-eta oso garrantzitsu bihurtu dira hainbat eta hainbat pertsonarendako.



“Arrasatearrak XIII. mendean aitzindari izan ziren euren teknikak eta metodoak erabiltzen”

“Mugimendu kooperatiboari esker, esan dezakegu hemen trantsizioa egon zela”

“Liburuko elkarrizketak-eta oso garrantzitsu bihurtu dira zenbaitendako”

Industriaren garrantzia, 150 orritan

Arrasate, langileek eraikitako herria liburu Leire Parra eta Isabel Aramendia arrasatearren artean idatzi dute. Oro har, Arrasate XX. mendean izan duen industriaren bilakaera laburbiltzen du, betiere, bilakaera hartan protagonista izan ziren langileen eskutik. Horretarako, lehen esan dugun moduan, ahozko 75 testigantza jaso dituzte, eta transkribatu. Eta horri laguntzen, argazki zahar dezente sartu dituzte.

Liburuaren Arrasaten sortu ziren aurreneko lantegiei begiratua eginez hasten da. Hortxe azaltzen dira Union Zerrajera, Uribe y Cia, Ugarte y Cia, Elma, Roneo, Industrias Asam, Arzamendi, Berecibar y Cia eta Industrial Mondragonesa lantegien gaineko makina bat kontu, baita sasoiako eskoletako kontuak ere.

Hasiera horren ostean, industriak Arrasatera ekarritako aldaketak aztertzen dituzte: biztanleriaren hazkunde eta herrian gertatu ziren aldaketak, hirigintza aldetik. Eta ahalegin berezia egiten dute enpresa horien

ezaugarriak kontatzeko; batez ere, mende hasierako langile haien lan baldintzak zeintzuk ziren aztertzen dituzte.

Industriaz gain, garai politikoei ere aldaketak ekarri zituzten herrira. Hala, Errepublikak lan alorrean ekarri zituen aldaketen berri ematen du liburuak; adibidez, lan orduen murrizketa, aurreneko aldiz zazpi eguneko opor garai ordaindua ezarri zutela, aukeratu zituzten jai egun berriak —Maiatzaren Lehena, adibidez—. Eta 1934ko iraultzari begiratua egin eta gero, 1936tik aurrera izan ziren gorabeherak ere irakur daitezke: Espainiako Gerra, enpresen militarizazioa —Union Zerrajera, adibidez—, gerraosteko zailtasunak —kartzuletan-eta egon zirenak Arrasatera itzuli zirenean, asko ez zituzten hartu zenbait lantegitan—, erlijioaren garrantzia...

Jakina, ezin bestela izan, eta kooperatibismoaren garaiko kontakizunekin bukatzen da liburuaren irakurketa.

ERASOAK/ Emakumeen kontrako erasoak salatzeke ekimena abiarazi dute

Emakumeen kontrako erasoak salatzeke kale agerraldiak egiten hasi dira

UBANE MADERA

Arrasateko Emakumeen Kontseiluak deituta, emakumeek jasaten dituzten erasoak eta tratu txarrak salatzeke kale agerraldia egin zuten astelehenean. Bestalde, emakumeekin lotutako argazki lehiaketa antolatu du Arrasateko Udaleko Emakume Sailak.

Oraingo astelehenean, emakumeen kontrako erasoak eta tratu txarrak salatzeke kale agerraldia izan zen Herriko Plazan. Emakumeen Kontseiluak abiarazitako ekimena da. Kontseilu horren arabera, "eraso horiek gorakada nabarmena izan dute aspaldian, bai kopuruan, baita larritasunean ere. Edonon gertatzen dira: etxean, kalean, tabernetan, gure herrian...". Emakume Kontseiluaren esanetan, arazo horren oinarrian, emakumeek gizartean bizi duten diskriminazioa eta esku-biderik eza dago. Eta gaineratzen du ezinbestekoa dela gauden tokitik (herri, auzo, elkarte...) horrelako egoerak direla-eta jarrera aktiboa izatea. Horrexegatik antolatu dituzte kale agerraldiak. Hasierako asmoa zen hilero egitea bat, baina erabaki dute oraingoz hurrengo hileko agerraldia ez deitzea. Eta, aurrera begira, beste kale bilkuraren bat deitu baino lehen, era horretako ekimenak hobeto landu behar direla erabaki dute, herritarren konpromiso handiagoa lortzeko.



Joan den astelehenean, 40 bat lagun batu ziren Herriko Plazan emakumeen aldeko kale agerraldian.

ARGAZKI ERAKUSKETA

Bestalde, eta emakumeen gainean berba egiten segituz, Udaleko Emakume Sailak *Emakumeak lanbide ezberdinetan* izeneko argazki lehiaketa antolatu du. Edozeinek parte har dezake ekimenean, betiere aurkeztutako lanak jatorrizkoak eta inoiz argitaratu barikoak badira, eta aurretik lehiaketa edo

sariketaren batean saririk jaso ez dutenak badira. Horrez gainera, argazkiek izenburua izan behar dute. Zuri-beltzean zein koloreetan aurkeztu ahal izango dira, maiatzaren 13a baino lehen, Emakume Sailean. Egile bakoitzak asko jota hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu.

Batutako argazki guztien arte-

an, hiru sari emango ditu Udaleko Emakume Sailak: argazki onenari (300 euro); emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna hobeto islatzen duen argazkiari (250 euro) eta 18 urtetik behar-koen argazki onenari (150 euro).

Informazio gehiago gura duenak Udaleko Emakume Sailera jo beharko du.



Hiru aste baino gehiago gose greban

Hiru aste pasatxo daramatza gose greban Txus Goikoetxea arrasatearrak. Haren lagunek esan digutenez, zortzi kilo galdu ditu eta mehe-mehe dago. Hori bai, ideiak argi ditu, eta Albaceteko kartzelako baldintzak hobetu arte ezer jan barik segituko duela dio. Albaceteko beste preso bat ere gose-greban hasi da. Biek erabaki dute ez direla berriro medikuarengana joango. /U.M.

Gipuzkoako ezti lehiaketa batean, arrasatearra garaile izan zen


U.M.

Bittor Murgiondo arrasatear eztingileak VI. Erlezain Eguneko txapela irabazi zuen joan den domekan, hilak 4, Zegaman jokatu zen txapelketan. Berez, Mutiloan jaiotakoa da Bittor Murgiondo.

Gipuzkoan jokatzeko den txapelketa da Erlezain Eguna. Hala, aurreko urtean Gipuzkoako eskualdeetan egindako txapelketetan aurreneko hiru postuetan geratu ziren erlezainek parte hartzen dute eztiaren lehiaketa horretan. Hain zuzen ere, Gipuzkoan zazpi eskualde daude. Hala, bada, 21 eztingile parte hartu du aurtengo saioan. Horieta-ko bat zen Bittor Murgiondo.

POZIK EMAITZAREKIN

Eta berak eskuratu zuen txapela, Hondarribiko Jon Gaztelu-



21 lagun artean lortu zuen txapela Bittor Murgiondo eztingileak.

mendiren eta Irungo Jesus Miguelezen aurretik.

Pozik geratu zen arrasatearra emaitzarekin, eta aurrera egiteko indarra eman ziola adierazi

LABUR

Hiru arrasatear atxilotuta borroka batengatik

Domekan, Ertzaintzak LF. R.G. 21 urteko, JL.S.S. 24 urteko eta J.I.G.A. 32 urteko arrasatearrak atxilotu zituen, ustez, borroka batean parte hartzeagatik. Ertzaintzaren arabera, 01:00etan abisatu zieten Gasteizko Foruen kalean borroka bat zegoela esanez. Han jakin zuten gizonezko bat sabelean zaurituta zegoela zenbait laban-kadagatik. Geroago atxilotu zituzten arrasatearrak. Labana ere aurkitu zieten. Zaurituari ebakuntza egin zioten, eta uste dute onik aterako dela.

Aste Santuko elizkizunak gertu dituzte Arrasaten

Arrasateko eliza guztietan egongo dira Aste Santuko meza bereziak datozen egunotan. San Frantziskon, Santa Teresan, Santa Marinar eta Kontxesiñotarretan, Eguen eta Bariku Santuan arratsaldean eta Zapatu Santuan iluntzean edo gauean izango dira mezak. San Andresen, Uribarri eta San Juanen, berriz, zenbait egunetan goizez ere izango da ospakizun bat, batez ere, San Juan parrokian. Hain zuzen ere, San Juan parrokian Eguen Santuan bakarkako aitortzak egingo dituzte, 10:00etatik 12:00etara. Eta, Eguen Santuan, 22:00etan Ordu Santua ospatuko dute.

FELIX IBARGUTXI

DENBORALDIARI GAINBEGIRATUA

Arrasateko kirol taldeek deskantsatu egingo dute apirilaren 17ra arte

Denboraldiaren azken txanpan, kirol taldeek daukatena eman beharko dute Aste Santuaren ostean

XABIER URZELAI

Liga Txapelketako azken partiduetan, igoera fasean, jaitsiera fasean eta kopan, Arrasateko kirol taldeek azken esprinta egingo dute Aste Santuaren ostean. Orain, baina, ondo merezitako deskantsua hartuko dute.

Kirol taldeek gogoz hartuko dituzte Aste Santuko oporrak, denboraldiko azken partiduei aurre egiteko ondo etorriko zaie-eta atsedean hartzea. Denboraldi hasieran jarritako helburuak lortzeko ez da askorik geratzen. Batzuek bete dute esandakoa, eta beste batzuei ez zaie askorik geratzen. Orokorean, kirol taldeek maila ona erakutsi dute, eta bat bera ere ez da mailaz jaitsiko. Gainera, posible da talderen batek gora egitea.

FUTBOLEAN, MAILARI EUTSI

Mondrak eskura du datorren urtean preferente mailan egoteko aukera. Horretarako, Josu Zubiaren mutilek hiru puntu eskuratu behar dituzte, eta zazpi norgehiagoka dituzte helburu hori lortzeko. Partidu asko dira horiek, baina lehenago ere egon da Mondra zazpi partidutan punturik eskuratu barik; hortaz, ez da komeni gauzak larregi aurreratzea. Helburua beteta, gainontzeko partiduek gatz gutxi izango dute Arrasateko taldearendako. Eta pena da, Gabonak arte mondragoetarrek goialdean izan zirelako. Preferentera igo berri den taldeari mailaz igotzeko eskatzea asko eskatzea da, baina taldearen martxa ona ikusita, polita izango litzateke Liga Txapelketa amaierak emozio apur bat izatea. Tamalez, datorren urtean izan beharko du horrek. Aurten, ahalik eta goren sailkatzea izango da mondragoetarren helburua. Lehenago, baina, lasaitasuna emango duten hiru puntuak eskuratu behar dituzte.

Joan den zapatuan, Mondrak bana egin zuen Ordiziaren kontra, eta arrasatearrek 42 punturekin hartuko dute Aste Santuko oporraldia. Hurrengo jardunaldia apirilaren 17an jokatuko dute, Atxabalpen, Amaikak Bat taldearen kontra. Ordizia atzeko postuetatik irten guran badabil ere, Amaikak Bat taldeak aspaldi galdu zuen ezer egiteko esperantza. Debakok azkenak dira, eta hogeitau puntu baino ez dituzte. Orain arte lau partidu baino ez dituzte irabazi, eta zortzi berdindu. Baqirudi oportetatik itzuli eta aukera ezin hobea izango duela Mondrak lehen aipatutako lehenengo helburua lortzeko. Amaikak Bat taldeari irabazita, oraindik 18 puntu egongo dira jokoan erdiko postuak atzean utzi eta gora egiteko.




Preferente mailan oraindik 21 puntu daude jokoan, eta puntu horiek beharrezkoak dira aurtengo denboraldia txukun amaitzeko.

*Mondrak Amaikak
Bat taldeari
irabazita eskura
ditzake beharrezkoak
dituen puntuak*

*Ointxe Arrasatek
jaitsiera fasean
norgehiagoka
bakarra galdu du,
Errioxan*

*AGR Arrasate
behartuta dago
etxeko partiduetan
irabaztera, kanpoan
bi galdu ditu-eta*



Jaitsiera fasean ez dago Ointxe Arrasateri Iturripen irabazi dionik. Oporretatik bueltan, Urdaneta saiatuko da hori lortzen.

OINTXE, JAITSIERA FASEKO ONENA

Ointxe Arrasate Saskibaloitza Taldeak ere lortu du helburua: datorren urtean lehenengo mailan izango da. Gorka Zurutzaren mutilendako mailari eustea zen garrantzitsua, eta jaitsiera fasean egin duten lanari esker erraz lortu dute helburu hori. Ligako lehenengo zatian mondragoetarrek gaizki ibili ziren. Mailari eusteko modu onena igoera fase-rako sailkatzea zen, baina aurten ezin izan dute hori lortu.

Denboraldian zehar, Ointxe-ko entrenatzaileak jokalariei gutxi izan ditu eskura, eta taldea uzteko asmoa zutenei jarraitzeko eskatu behar izan die taldeak. Jaitsiera fasearen hasieran urduriz goen bat baino gehiago. Azken urteotan Arrasate igoera fasean ibili da borrokan, eta jaitsiera fasea jokatzea oso arriskutsua zen. Taldeak indarrez hasi zuen fase berria, eta jokalariei gutxi izan egonda ere, Zurutzaren mutilek sekulako maila erakutsi dute. Lehenengo hamar norgehiagokak jarraian irabazi zituzten, eta Kalagorri izan da eurak irabazteko gauza izan den talde bakarra. Etxean nahiz kanpoan, talde mondragoetarrek sekulako erraztasunarekin eskuratu dituzte puntuak. Lehen, ondo jokatuta ere taldeak galdu egiten zuten. Jaitsiera fasean, baina, ondo edo



ARRASATE PRESS

AGRk badu zer hobetu Aste Santuaren ostean: bigarren zatian taldeak nabarmen egiten du behera.

gaizki jokatu puntuak Arrasatekoendako izan dira.

Joan den astean, Gasteizko Gasnalsa taldearen kantuan Ointxe 72-84 irabazi zuen. Saskibaloian ere merezitako deskantsua hartuko dute Aste Santuan. Apirilaren 17an itzuliko dira lanera, Urdanetaren kontra.

ERRUGBIAN, IGOERA FASEAN BEHERA

Arrasate Errugbi Taldekoei zapore gazi-gozoa geratu zaie. Ligan maila oso ona erakutsi zuten, eta David Jauregiren mutilak igoera faserako sailkatu ziren Zarautzekin batera. Gehien estutu behar zutenean, baina, bi partidu galdu zituzten jarraian; Gaztediren kontra lehena eta Santanderko Unibertsitatearen kontra bigarrena. Gaztediren kontrako partidua parekatua izan zen, baina Santanderren argi geratu zen talde mondragoetarrak behera egin zuela. Arrasatekoak jokalarigutxirekin joan ziren Santanderre, eta hangoek ondo aprobetxatu zuten hori. Etxean jokatutako partiduetan Arrasatek ezer gutxi egin ahal izan zuen. Gaztedi gehiago izan zen, baina mondragoetarrek Santanderri irabazi zioten. Edozelan ere, garaipen hark gutxirako balio izan zuen; Zarautzi mesede egiteko baino ez.

Orain, Arrasateri bosgarren postuagatik lehiatzea baino ez zaien geratzen. Joan den astean, Arrasatek justu-justu irabazi zion Garagartzan Eibarri. Emozio handiko zeingehiagokan izan zen, arrasatearrek azkeneko minutuetan eskuratutako puntuei esker lortu zuten-eta garaipena. Errugbikoek ere atsedean hartuko du Aste Santuan; hiru asteko atsedena, hain zuzen, apirilaren 24an jokatuko dute-eta Kakarraldoren kontra.

AGR ARRASATE GORA IGOZTEKO LANEAN

Arrasateko Eskubaloitza Taldeko talde nagusia lehen territorial mailatik Euskadiko Txapelketa-ira igotzeko lanean dabil. AGR Arrasateko mutilek lan ona egin zuten ligan, eta Urolarekin batera sailkatu ziren igoera faserako. Igoera fasea hasi aurretik, Pitxi Herreroen mutilek Udaberri Txapelketa jokatzeke aukera izan zuten, eta azken txanpara arte ibili ziren lehian. Igoera fasea hasi behar zuten, ez zitzaizkien komeni finaleraino iristea. Baina Udaberri Txapelketari esker taldeak ez du geldialdi-

rik izan, eta igoera fasea sasoi onan hasteko balio izan die horrek.

Igoera fasean Arrasateko taldeak hiru jardunaldi jokatu ditu. Lehenengo partiduan, Arrasatekoek alde txikiagatik irabazi zieten Deustukoei. Orduetik hona, Arrasatek jokatu dituen bi norgehiagokak etxetik kanpo izan dira, eta emaitzak ez dira batere onak izan. Orain dela bi aste, AGR Arrasatek azkeneko minutuetan behera eginda galdu zuen Urolaren kontra. Joan den astean, berriz, Erromo taldea erraz nagusitu zen (22-15). Lehenengo zatian arrasatearrek ondo ibili

ziren; atsedendian, mondragoetarrak hiru goleko aldearekin erretiratu ziren aldagelara. Bigarren zatian, baina, emaitzak erakusten duen moduan gauzak erabat aldatu ziren. AGRk gauza gutxi egin zituen ondo, eta bizkaitarrek ez zuten aukera galdu.

Gainontzeko kirol taldeek moduan, eskubaloioek ere oporraldia izango dute. Apirilaren 18an jokatuko dute hurrengo jardunaldia; Bizkaiko Trapaga taldearen bisita izango dute Iturripen. Orain arte etxetik kanpo jokatutako norgehiagoketan AGRk ez du etekinik lortu, eta Aste Santuaren ostean, etxean jokatuko dituzten partiduetan mondragoetarrak irabaztera behartuta daude.

EGUBAKOITZEAN, DOKE TXAPELKETA

Domekan, Arrasateko gaztetxo-en txanda izan zen, eta ohitura den moduan Egubakoitz Santuan jokatuko dute nagusiek 24. Doke Txapelketa. Txapelketa hori Arrasateko elkarte gastronomikoen ordezkariak jokatuko dute, eta ohiturari eusten badiote, irabazleek Arrasateko Udaleko ordezkariak izango dituzte kontrario. Txapelketa goizeko hamarretan hasiko da, eta hura ikustera hurbiltzen diren guztiendako sardinak egongo dira. Hori bai, Arrasateko Udalak ordainduta.

ZAPATUAN, OSASUNA VS. GIPUZKOA

Aurten ere antolatu dute Realeko Gazte Mailako Nazioarteko Txapelketa, eta partiduetako bat Atxabalpen jokatuko dute. Osasunak eta Gipuzkoako konbinatuak zapatuan jokatuko dute (17:00, Atxabalpen). Guztira zortzi taldek hartuko dute esku txapelketan, eta bi multzotan banatu dituzte: A multzoan, Reala, Athletic, Amsterdango Ajax eta Bartzelona taldeak izango dira; eta B multzoa, berriz, Real

Egubakoitz Santuan jokatuko dute, Monterronen, nagusien 24. Doke Txapelketa

Zapatuan Osasunak eta Gipuzkoako konbinatuak jokatuko dute Atxabalpen

Gazte mailako txapelketako talde onenek astelehenean jokatuko dute finala, Anoetan

Madril, Osasuna, Gipuzkoako konbinatua eta Paris Saint Germain taldeek osatuko dute. Hasieran, hiru partiduko ligaxka jokatuko dute. Esan beharra dago aurtengo edizioan garaipen bakoitzak bi puntu balioko dituela, ez hiru, aurreko urteetan bezala. Horrela, azken partidura arte emozio handiagoa izango da, puntuen arteko aldea txikiagoa izango da-eta. Finala astelehenean, hilaren 12an, jokatuko dute Anoetan. Norgehiagokan 16:30ean hasiko da, eta Euskal Telebistak zuzenean eskainiko du partidua.



ARRASATE PRESS

Arrasateko Errugbi Taldea gainontzeko taldeak baino astebete geroago hasiko da; oporretatik bueltan Kakarraldoren kontra jokatuko dute.



SAN ANDRESKO GAZTE TXOKOKO LAGUNAK KUTXA ESPAZIOAN

San Andresko Gazte Txokoko lagunak Miramonen dagoen Kutxa Espazioan izan ziren joan den asteburuan. Arrasateko gaztetxoek ondo baino hobeto pasa zuten, eta gainontzeko arrasatearrak animatu gura dituzte ordu batzuk zientzian murgildu eta ondo baino hobeto pasatzeko. Egia esan, zientziak dituen bitxikeriak ikusiz entrete-nitzeko aukera paregabea eskaintzen du Kutxa Espazioak. Aste Santuan zer egin ez dakizuenok hitzordu polita duzue Miramonen.

ZAHAR BERRIKO KOADRILA GALANTA ETORRI ZEN EGUBAKOITZEAN GOIENA BISITATZERA

Joan den egubakoitzean Zahar Berri egitasmo-ko lagunak izan genituen bisitan Goienan, eta koadrila handia etorri zen, gainera. Azken asteotan Zahar Berriko hainbat talde izan dira gurean. Egubakoitzeak, baina, marka guztiak apurtu zituen, 18 lagun etorri ziren-eta gurera. Joan den astean idatzi genuen Zahar Berrikoek

mintza praktikak egiten ibiltzen badira ere ARRASATE PRESSen galdera gutxi egin zituztela. Egubakoitzeak taldeak, berriz, prestatuta ekarri zituen galderak. Harpidetzaren gainekoak, dirulaguntzen gainekoak... Astero-astero azala nola aukeratzen dugun ere galdetu ziguten, eta nahikoa lan izan genuen horri erantzuteko.



NAGUSIEK HARTUKO DUTE GAZTEEN ORDEZKOA

Joan den domekan Arrasateko gaztetxoak ibili ziren dokean jokatzeko, eta egubakoitzean nagusiek hartuko dute txanda. Hain zuzen ere, goizeko hamarretan hasiko da 24. Doke Txapelketa, eta beste behin, Arrasateko elkarte gastronomikoe-tako ordezkariak ibiliko dira nor baino nor gehiago. Ikusi egin behar zein bikoteak erakusten duen abilezia handien.



BERTSO ARTEAN, BAZKARI EDERRA GAZTETXEAN

Joan den zapatuan, bertso bazkaria egin zuten gaztetxean. 40 lagun inguru elkartu ziren, eta haiekin batera, Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsolariak izan ziren. Bazkalostean izan zen giroa azaltzea soberan dago. Ordu eta erdi ibili ziren bi bertsolariak bertsoak bota eta bota. Eta, han ez zen inor nekatzen. Bertsolariak gustura, eta entzuleak zer esanik ez! Bazkaloste ederra egin eta gero, konturatu orduko afaltze-ko ordua iritsi zen, eta orduan ere kantu batean ibili ziren. Gaua ere abesti herrikoiak abesten igaro zuten.

ELKARRIZKETA

MARTXE ARANA/MARGOLARIA

“Elkartrukeak egiten ditut; etxean, laguneren hainbat margolan dauzkat”

IKER BARANDIARAN

Martxe Aranak urte asko daramatza margotzen. Aretxabaletan jaioa, Madrilen, Arrasaten eta Donostian bizi izan da. Margolari moduan ibilbide luzea dauka. Arregi galerian ipini du margolanen erakusketa.

Txikitatik izan duzu margotzeko zaletasuna? Norekin ikasi zenuen?

Bai, txikitari, 8 urterekin-edo, Aretxabaletan bizi nintzanean, margotzeko zaletasun handia nuen, paperak urarekin busti eta koloreak egiten nituen, oso gustuko nuen hori. Gerora, heldua nintzanean, Fagorren lanean nentzela, marrazketa, pintura eta olio eskolak ematen zituzten lan-tegian, eta izena eman nuen. Asko ikasi nuen, eta han hasi margolanak egiten.

Kanpoan ere ibili zinen, ezta?

Bai, Madriler jo nuen eta han Arte eta Lanbide ikasketak egin nituen hiru urtez Andres Barajasekin. Batez ere, Pintura, Marrazketa eta Artea ikasi nituen. Hori bukatu eta gero, ia arratsaldero, Arte Ederretako Elkartera joaten nintzen margotzera. Asko zaletu nintzen.

Horrez gain, Arrasaten bizi izatera etorri nintzanean, Julio Galarta arrasatearrarekin eta Migel Okina bergararekin asko ikasi nuen. Askotan joaten ginen hirurok inguruetara paisaiak margotzera.

Ordutik gaur egunera arte hainbat eta hainbat erakusketak egingo zenituen, ezta?

Egia esanda, bai, mordoxka egin ditut. Madrilen bizi nintzanean, 1980an, Aretxabaletan Euskadiko Kutxak daukan aretoan erakusketa egin nuen. 1982an, Madrilgo galiziarren etxean; 1984an, Gasteizen, Gasteizko Aurrezki Kutxan; 1986an, Gasteizen Luis Ajuria aretoan; 1988an, Oslon (Norvegia)... Arrasatera bizi izatera etorri nintzanean, besteak beste, Arrasaten bertan, Salamancan, Palentzian eta Zarautzen egin ditut.

Dagoeneko etxea margolanez beteta izango duzu, ezta?

Lehen, bai. Gaur egun, berriz, beste margolari batzuekin elkartrukeak egiten ditut, eta etxean beste lagun batzuen lanak ditut gehienbat. Beste margolan batzuk saldu edo oparitu egin ditut.

Lehiaketa askotan esku hartu duzu?

Aspaldian, ez. Lehen, bai. Batez ere Arrasaten egiten zituzten lehiaketetan esku hartzen nuen. Hainbat sari eskuratu nituen: Eibarren, Arrasaten, Ale-



“Julio Galartak, Migel Okinak eta hirurok paisaiak margotzen genituen askotan”

“Madrilen Arte eta Lanbide ikasketak egin nituen Andres Barajasekin. Asko ikasi nuen han”

manian lagun batzuekin egindako talde-lan batekin...

Zein motibo margotzen dituzte zure lanetan?

Gehienbat paisaiak, baina baita loreak ere. Arrasatera ekarri ditudan lanetan, batez ere, Donostialdeko paisaiak eta loreak margotu ditut. Iraganean, Arrasateko inguruak ere jaso nituen margolanetan. Orain dela hamar bat urte, ia loreak bakarrik margotzen nituen. Sasoiak izaten ditut. Edozelan ere, koloreari garrantzi handia ematen diot, eta, hain zuzen ere, nire lan gehienek kolore handia izaten dute.

Zein teknika duzu gustuko, olio, akua?

Olio oso gustuko dut, baina baita goache-a ere. Goache-a akua-

relaren antzekoa da, baina lodiagoa da. Batzuetan goache-a eta tinta nahastu eta horrekin margotzen dut.

Arrasaten ez duzu aspaldi erakusketarik ipini, ezta?

Egia esanda, ez. Iaz, Gabonetan, Arregi galerian antolatutuzen talde-erakusketan esku hartu nuen, baina bakarrik egiten ditut aspaldi ipini. Ea arrasatearrak nire lanak gustuko dituzten.

Margotzea zure ogibide bilakatu duzu?

Horren saiakera egiten nabil, baina ez da erraza. Hala ere, sasoiak margolan batzuk saltzen ditut, eta ezin naiz kexatu. Aspaldian, lana utzi dudantek, ia egunero margotzen dut etxean. Bestela, ideiak hartzen ibiltzen naiz.



CUANDO MENOS TE LO ESPERAS...

(SOMETHING'S GOTTA GIVE)

WWW.CUANDOMENOSTELOESPERAS.COM

ARRASATE PRESS
Cuando menos te lo esperas filman Jack Nicholson maitemindu egingo da.

‘Thirteen’ drama eta ‘Cuando menos te lo esperas’ komedia

I.B.

Aste Santuan ez dute filmik emango. Apirilaren 16an, zineklubean, nerabezeroaren gaineko Thirteen drama emango dute. Zapatuan, domekan eta astelehenean, Cuando menos te lo esperas.

Aste Santuan ez dute filmik emango Amaia Udal Antzokian, arrasatear askok kanpora jotzen dutelako eta Udaleko langileek ere jai hartuko dutelako. Beraz, etzi, egubakoitza, ez da zineklubik egongo; eta ondorengo egunetan ere ez da filmik egongo.

Apirilaren 16an, egubakoitza, emango dute lehenengo filma. Zineklubeko Thirteen drama aukeratu dute, AEBetako gazteen nerabezeroaren gaineko istorio bat kontatzen duena. Catherine Hardwicke zuzendariak egin du filma eta 100 minutu irauten du. Tracy gaztetxo institutuko azken aurreneko urtean hasiko da eta institutuko neska xar-mantenaren, Evieren, lagun egingo da. Haren koadrilan onartua izateko, Tracyk itxura aldatu, eta mutilen aurrean deigarri gertatzea lortuko du. Horrez gain, drogak hartzen hasiko da.

Catherine Hardwickeren lehenengo filma da, eta gidoia

ere berak idatzi du. Protagonistak Evan Rachel Wood (*El rincón de los secretos...*) eta Nikki Reed hasiberria dira. Horrez gain, honako hauek ere esku hartu dute: Holly Hunter (*Cosas que diría con sólo mirarla; O brother...*), Jeremy Sisto (*May...*) eta Deborah Kara Unger-ek (*Sunshine; Huracan Carter...*). Sundanceko Film Jaialdian Zuzendari Onenaren saria jaso zuen.

JACK NICHOLSONEN XEBREKERIAK

Apirilaren 17an eta 18an, zapatua eta domeka, 19:00etan eta 22:00etan, eta astelehenean, 20:30ean, *Cuando menos te lo esperas* filma emango dute Amaia Udal Antzokian.

Nancy Meyers zuzendariak egin du komedia hori eta 128 minutu irauten du. Harry Sanborn mutilzaharrak bikote moduan 30 urte baino gutxiago dituzten emakumeak gura ditu. Marin ezagutu eta asteburu erromantikoa egitera joaterakoan, Marinen ama Erica Barry ezagutuko du. Ericaz maitemindu egingo da, eta haren alboan egoteko Harryk zeharo aldatu behar du.

Protagonista Jack Nicholson da, eta alboan Diane Keaton, Frances McDormand eta Keanu Reeves izango ditu.

KULTURAPILULAK

AEDk egun bakarreko makillaje ikastaroa antolatu du apirilaren 24rako, zapatua

Apirilaren 24rako, zapatua, AEDk makillaje ikastaroa antolatu du. Elkarteko bazkideek ikastaro hori egitea eskatu zuten. Horregatik antolatu dute ikastaroa. Esan bezala, egun bakarreko ikastaroa izango da, 11:00etan hasi eta 14:00etan bukatu. Ikastaroa Xeli eta Mari Carmen Etxeandia *Gemes* ahizpek emango dute, eta emakumezkoak eta gizonezkoak zuzenduta dago. Antolatzaileek azpimarratu dute ez dela Aratusteetako makillajearen gainekoa izango. Asteburuetan edo gainontzeko egunetan egin daitekeen makillajearen gainean berba egingo dute. Izena emateko azkenengo eguna apirilaren 22a da. 12 euro ordaindu behar dira. 18 urtetik beherakoek eta AEDko bazkideek hamar euro ordaindu beharko dituzte. Norberak makillatzeko erabiltzen duen materiala eraman beharko du, aholkuak eman diezaioten. Praktikoak ere izango da.

BEHEKODENDATIK

Mikel Lasa

MIKEL LASA ASEGURU ARTEKARITZA

XABIER URZELAI

Mikelek San Viatorren ikesi euen gaztetan. 19 urtekin itxi eutzen ikestiei, eta soldaduskara juen zan. Handik bueltan, aittek lagundute, seguro kontuetan hasi zan lanien. Hasieran kalien gora eta behera ibiltten zien, kliente billa, seguruen asuntue gauza barrixe zan-eta.

Ze falta jako Mondragueri?

Neuk ez dot gauza askorik iger-ten faltan; kultura asuntuen ofer- tie hobeketie-edo.

Eta, ze dauko ona?

Mondraguek gauza asko dau- ko onak. Daukon biztanle kopu- ruekin ondiokan be herri izaerie daukola, adibidez.

Ze falta jatzu zeuri?

Ezer be ez. Bueno, familixiekin egoteko denpora luziaue.

Eta, ze dauketzu sobran?

Akaso, lanegun bat.

Pelikula bat. Liburu bat.

Musika talde bat.

El cazador / Ez dot askorik lei- duten! / Supertramp.

Momentu honetan nora juen- go zitzake gustora?

Garagartzara.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Jeneralien, etxeko lanek ez dustie burukomin haundirik emu- ten, baiñe plantxie egittie...

Tranpan ibilttekotan nor- baittekin, zeñekin?

Catherine Zeta-Jones aktorie- kin, adibidez.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.

Ordenadorie.

Denpora librien ze egitten dozu?

Deskantsau, biajau, pasiau...

Kapritxo bat.

Erlojuek.

Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.

Hondarribia.

Ze leiduko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Euskal Herrixen gatazka poli- tikue konpondu egin dala eta pakien bizi garela.



"Mikel Lasan gehixen gustetan jakun konpainiekin egitten dogu lan; geuk elegiduten dittugu"

Ze lan egitten dozue Mikel Lasan?

Guk seguro konpainiekin egi- tten dogu lan, gehixen gustetan jakunekin. Eta, pertsona bat segu- ro klase bat egittera etorten daniel, oferta onena zein dan erakusten dutzegu. Automobillendako dala, etxiendako dala, jubilaziñorako dala...

Zeugendako ze esan gure dau seguro berbiek?

Berba baten esateko, trankili- dadie. Edozer pasaute be, lagun- tza dana eukiko dozula jakittiek emuten dauen trankilidatie.

Askok esaten daue mundu hau geruau eta inseguruau dala.

Eta arrazoie daukie. Azkenal-

"Geuretako seguro berbiek trankilidatie esan gure dau; edozer gauza pasetan bada be..."

dixen pasau dienak ikusitte...

Aste Santuek gainien: auto- mobilletako seguro etxiek dar- darka?

Bai, eta danak, gainera. Tama- lez, badakigu Aste Santuen zenbat akzidente egoten dien. Bakaziñ- tatik bueltan lan haundixe euki- tten dogu beti. Eta, akzidentietan automobille bakarrik dan bittar- tien... Pozik!

Momentu honetan ze asegu- rau zeike?

Bixer bazkarixe eukiko dotela Gasteizen familixakuekin eta lagun batzuekin.

Eta, ze ez zeuke aseguruauko?

Bazkaldu eta gero ez garela juengo konprak egitten. (Barre).

NIREBIDAIAHURA/ Bittor Iñarra

Hego Afrikara / 2001eko abuztuan

J oan den astean Drakersberg-eko mendikatean utzi genituen Bittor eta Jasone: "Paraje ikusgarria zegoen, eta lasai ibiltzeko aukera izan genuen. Ordura arte, Johannesburgon kontuz ibili behar genuelako eta parke barruan ere ezin genuelako gura moduan ibili, ez genuen lasai ibiltzeko aukera izan, eta Drakersberg- en izan genuen horretarako aukera". Han bi egun egin eta hegoaldera jo zuten, hondar- tzara: "Lehenengo aldia zen hango hondartzetara joaten ginela, eta lasai ibili ginen, lekuak ikusten. Uretan marra- zoendako sare bereziak zeuden, eta gu belaunetaraino sartzen ginen, badaezpada ere". Behin, hondartzaren ondoan zeudela ezusteko ederra izan zuten: "Arratsaldea zen, eta afaltzera jatetxe batera joateko asmoa geneukan. Orduan, baina, hondartzatik metro gutxira balea bat azaldu zen. Han egon zen uretan jolasten, eta han egon ginen gu ere, hari begira. Turistak itsasontzietan joaten dira baleak ikustera, eta guk kanpade- da aurrean geneukan bat".



"Hondartzatik ikusten genuen uretan zegoen balea"

Ez zen, baina, baleak ikusi zituzten azken aldia izan: "Lur- mutur Hirira bidean, Hermanos badiatik pasa ginen. Badi- horretan baleak egoten dira, eta gu izan ginenean sei edo zazpi balea ikusi genituen". Lurmutur Hirian bost egun egin zituzten: "Hiriko bizitza egin genuen han, eta ezuste- ko bat ere izan genuen. Paseatzen geundela, koadrila baten artetik pasa ginen, eta konturatu nintzenerako labana bat neukan lepo ondoan. Ez dakit zer gertatu zen, baina eure- tako beste batek labana zeukanari joaten uzteko keinua egin zion, eta alde egin genuen; imajina dezakezue zelako gorputzaldiarekin geratu nintzen".

Gertaera hark zapore gazi-gozoa utzi zion Bittorri: "Pena izan zen, ordura arte ondo baino hobeto ibili gine- lako". Lurmutur Hiritik Johannesburgora itzuli behar zuten, egun gutxi geratzen zitzaizkien-eta. "Bueltan basa- mortutik pasatu gura genuen, baina ez zen posible izan; 25 egun gutxi dira Hego Afrika ezagutzeko!"

XABIER URZELAI



Bost egun egin zituzten Lurmutur Hirian.

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

P

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Toilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebeldun hizkiak

Gambrinus garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32

ZAHARREN ETXETIK



Gaur egun 98 lagun bizi dira Iturbide egoitzan. Guztiei zerbitzu egokia emateko egoitza eraldatu beharra dute.

Iturbide egoitza eraldatzeko proiektua idazten dabilta; lau solairu izango ditu

IKER BARANDIARAN

Aspaldian, Arrasateko Udala eta Abaroa erretiratuen elkartearen harremanetan dabilta, irtenbide egoki baten bila.

Udaleko Ongizate Saileko arduradunak, Iturbide egoitza kudeatzen dutenak, konturatu dira erretiratuen egoitzan egin gura dituzten eraldaketa lanen ondorioz Abaroa elkarteak daukan solairua Iturbide egoitzak bereganatu beharko duela.

Bai Udalak eta baita Abaroa elkarteak ere aspalditik zekiten egunen baten Iturbide egoitzak halako premiak izango zituela, eta horren ondorioz, erretiratuen elkartearen lekuz aldatu beharko zutela.

Iturbide egoitzan eraldaketa lanak egiteko bi arrazoi daude: batetik, egoitza hori 1984an eraiki zuten, eta sasoi hartan erabiltzaile gehienak baliatuak ziren. Gaur egun, berriz, Iturbiden bizi

direnen %85ek baino gehiagok mendekotasuna dute. Horregatik, beharrak bestelakoak dira eta horrek zerbitzu egokia emateko hainbat eraldaketa egitera behartzen ditu.

Bestetik, Eusko Jaurlaritzak erretiratuen egoitzetan ezarri beharreko ezaugarri teknikoak aditzera eman ditu. Araudi hori ondo bete beharrak ere bultzatu ditu lanak egitera.

PROIEKTUA IDAZTEN DABILTA

Aurreproiektua Gipuzkoako Foru Aldundira bidali zuten, oniritzia eman diezaion. Eta, bitar-

tean, arkitekto talde batek proiektua idazten dihardu. Udaleko Ongizate Saileko teknikari Iñigo Garitanok oraindik ez daki eraldaketa lanak noiz egingo diren.

ALDAKETA NAGUSIAK

Iñigo Garitanok azaldu dizkigu, besteak beste, egin beharreko lan garrantzitsuenak: egoitzak dituen hutsune guztiak zuzendu egin beharko dituzte. Horien artean, komunei zabalera handiagoa eman beharko diete. Horretarako, korridoreei zatiak kendu beharko dizkiete. Horrez gain, argindar instalazioa, sute-

en kontrako sistema eta deiak egiteko sistema aldatu egin beharko dituzte, zaharkituak gelditu direlako.

Bestalde, erizainen gelak ez du araudia betetzen, eta handitu egin beharko dute. Jaurlaritzako araudiaren arabera, fisioterapeutandako gela bat egokitu behar dute. Egungo banaketan ez dago lekurik. Beraz, beste banaketa bat egin beharko dute.

ERRETIRATU GEHIAGOREN DAKO TOKIA

Eraldaketa guztia egin ondoren, eta horretarako eraikinaren lau solairuak hartuta, Ongizate Sailak uste du erretiratuendako toki gehiago sor daitezkeela. Edozelan ere, proiektua idatzi arte ezin dute hori ziurtatu.

Bitartean, Udala eta Abaroa harremanetan dabilta, erretiratuen elkarteak egokitzat izango duen lokala aurkitu, eta leku aldaketa hori eztabaidatzen.

Abaroa herriko erretiratuen elkarte handiena da.

Iturbide eraikitzean, denak ziren baliatuak. Egun, mendekotasunak dituzte gehienek

Eraldaketa onduz, Abaroa elkarteak erabiltzen duen solairua egoitzak hartuko du

LABUR

Estresa berbegai izango dute ICTE elkarteak

ICTE (Hirugarren Adineko Institutua) laneko estresa kontrolatzeko ikastaroa antolatu du. Apirilaren 19an, 20an, 21ean, 22an eta 23an egingo dute, elkarteak Saiolanen daukan egoitzan, 15:00etatik 18:00etara. Guztira, hamabost ordu emango dituzte eta doan izango da.

Istripuen prebentzioa aztertuko dute

Apirilaren 15an, eguena, istripuen prebentzioaren gaineko berbaldia egingo dute Uribarri erretiratuen elkarteak. Etxean zein kezka edo ardurara hartzea komeni den azalduko dute. Horrez gainera, inoiz ezbeharren bat gertatuz gero, zelan jokatu behar duten azalduko dute, 17:00etan.

Abaroa elkarteak Arnedora txangoa egingo du

Apirilaren 22an, eguena, Abaroa erretiratuen elkarteak Arnedora (Errioxa) txangoa egingo du. Bi autobus joango dira. Logroñora bidean hamarretakoa egingo dute. Arnedo bisitatuko dute, eta Azagran, Venecia ostatuan bazkalduko dute. Eman izena lehenbailehen.

Peñiscolara joateko txartelak eskuragarri

Abaroak Peñiscolara joateko antolatu duen bidaiarako izena emateko aukera dago oraindik. Guztira, 165 lagunendako lekua dago. Ibarreko edozein erretiratu joan ahal izango da. Interesatuak 270 euro ordaindu beharko dituzte. Bestalde, gainontzekoek txartelak har ditzakete.

ESKORIATZA
ERRETEGIA
MENDIOLA

Tfno 714345

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Aretz
Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

S. CARRASCAL S.L.


Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

EZETZASMATU



ARTXIBOA

Non dago argazkian ikusten duzuen eskultura hori?
Arrastoa: ume asko ibiltzen da inguruan, batez ere eguraldi ona dagoenean.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Orlando tomate frijitua
400 gramoko 3 brik + brik bat doan

1,35€ 225 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MERTXE SUDUPE erandako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Mertxe!

Galderen erantzun zuzena:

ELMA lantegian.

ARRASATEKO HISTORIA

Arrasateko futbolaren gaineko pasadizoak (II)

'PEQUEÑA HISTORIA DEL...' / J. LETONA

Aurreko astean hasi genuen segituko dugu oraingoan: Arrasateko futbolaren gaineko pasadizoak kontatzen. Lehenengo eta behin, *Titanic* izeneko kamioia izango dugu berriro berbagai. Kamioi hura Gasteizera eramaten zuten egunero, azoka txikira. Baina, hala-eko eguen batean, Gasteiztik bueltan zetorrela, frenoak apurtu egin zitzaizkion *Titanic* kamioiari, Gatzagako aldapan. Hori ikusita, kamioiaren gidari Leon Azkarak gertatzen zena kontatu zien atzean zihozazenei, eta kamioitik salto egiteko esan. Hala egin zuten guztiak. Gero, aldapan behera jaitsi ziren, kamioia nora jausi zen ikusteko. Baina bidean ez zen kamioirik ageri. Eskoriatzaraino iritsi ziren jaisten-jaisten. Eta sekulako sorpresa hartu zuten ikusi zutenean kamioia ere haraino iritsi zela. Trenaren hesiek geratu zuten *Titanic*.

Gaia erabat aldatuz, bestelako pasadizo batek arrasatearrek tranpa egin zutenekoa kontatzen du. Beasainen gertatu zen. Mondrak Eibarko Lagun Artea taldea zuen aurrez aurre, eta epailea *erostea* erabaki zuten. Hitzartu zuten epailearekin ordaindu beharrekoa,



Maalako zelaia inauguratu zuteneko argazkia; 1922ko ekaineko San Juan eguna zen.

'PEQUEÑA HISTORIA DEL FÚTBOL EN MONDRAGÓN'

eta hasi zen partidua. Halako batean, izan ez zen penalti bat adierazi zuten epaileak. Baina Mondrakoek ez zuten golik sartu. Gauza berbera gertatu zitzairen epaileak adierazitako bigarren eta hirugarren penaltiekin. Hori ikusita, epailea haserretu egin

Eibarko Lagun Artea taldearen kontrako partidua irabazteko epailea 'erosi' zuen Mondrak

zen eta zera esan zien Mondrako jokalariei: "Baina zer demonio gura duzue? Nik nahikoa egiten dut penaltiak adierazten! Akaso neuk jaurtitzea gura duzue, ala?"

Kontuak kontu, azkenean lortu zuten gol bat egitea. Hori bai, gertatutakoarengatik protesta

ugari izan zen Arrasaten eta epaile hura deskalkifikatu egin zuten.

20ko hamarkadako pasadizoan artean, beste batek kontatzen du Jose de Añibarro Mondra taldeko presidente zenean, entrenatzaile-masajista ingeles bat kontratatu zutela: mister Harris. Hilean 500 pezeta kobratzen zituen. Eta haren ohituretako bat zen egunero-egunero errekan bainatzea. Baita neguan ere. Batzuetan, arrasatearrek erreka izotza apurtzen ikusi zuten bainatu ahal izateko.

Eta pasadizoekin bukatzeko, Beasainen Errenteriako Club Españak eta Mondrak jokatu zutenekoa kontatuko dugu. Kanporaketak bi partidu zituen. Errenterian 2-0 galdu zuen Mondrak. Baina Arrasaten emaitzari buelta eman zioten etxekoek eta berdinduta geratu ziren. Kanporaketa erabakitzean Beasaingo Senpere zelaia aukeratu zuten. Partiduaren arauzko denbora bukatu zenean, hiruna berdinduta zeuden bi taldeak. Luzapena jokatu zuten, eta berdinduta beste bat... Azkenean, guztira, hiru orduan ibili ziren jokatzeko. Hori bai, horrenbesteko lanaren ondoren, Mondra taldeak 4-3 irabaztea lortu zuen.

Txirritola

ARAMAIO / Eguaztena / 2004ko apirilaren 7a / 104. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizenziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Guztia gertu dute datorren apirilaren 16an gazteen jaia ospatzeko

UBANE MADERA

Hurrengo barikuan, hilak 16, ospatuko dute Aramaioko I. Gazte Eguna. Ezohiko eguna izango da; izan ere, halako zerbait antolatzen duten aurreneko aldiz izateaz gain, Aramaion jaietan izan ezik ez da halako ekitaldirik izaten. 18:30ean hasiko da jaia, bertsolarietara eta trikitilarietara.

Bertso-triki txikiteoarekin hasiko dituzte Aramaioko I. Gazte Eguneko ekitaldiak, 18:30ean. Herriko trikitilarietara eta Andere Arriolabengoa eta Manex Agirre bertsolarietara parte hartuko dute.

Gero, 22:00etan hasiko dira kontzertuak kiroldegian. Bost taldek parte hartuko dute: Materia (Donostia ingurukoak, metal estiloa), Biok (bizkaitarrak, metal estiloa), Ataka (aramaiotarrak, punk sustraiekin), Sharon Stoner (oñatiarrak, stoner estiloa) eta Sakre (aramaiotarrak, metal hard-core estiloa) taldeek. Horien ostean, DJak arduratuko dira kiroldegian elkartutako jendea girotzearaz. *Karkass* eta *Gorka* aramaiotarrak jardungo dute lan horretan. Horri guztiari laguntzen, bi taberna izango dira kiroldegian: bata Ataka eta Sakre tal-



18:30ean hasiko da Aramaioko I. Gazte Eguna; gero, 22:00etan hasiko dira kontzertuak, kiroldegian.

deek ipiniko dutena; eta bestea presoan aldeko taldeak ipiniko duena. Azken talde horren gainean, esan beharra dago egunean bertan muntaketa lanak eta egiten ibiliko direla, antolatzaileei laguntzen.

Kontzerturako sarrera bost euro kostatuko da; antolatzaileek kontatu digutenez, kontzertuaren

gastuak ordaintzeko izango da dirua.

KONTZERTUA BAINO GEHIAGO

Aramaioko Sakre taldea ibili da hori guztia antolatzen. Kontatu digute kontzertu bat egiteko asmarekin hasi zela ideia, baina, jaietan izan ezik, Aramaion halako-

rik ez dela egoten eta egun berezia antolatzea erabaki zutela. Hala, aurtengoa aurrenekoa bada ere, datorren urtean II. Gazte Eguna izango dela espero dute, Aramaion sortu berri den Gazte Asanbladak lekukoa hartzen badu.

Aurtengoari dagokionez, jende guztia gonbidatu gura dute.

Manex Agirre hirugarren lekuan sailkatu da finalerako

Manex Agirre bertsolariak Aramaio ordezkatzeko du aurtengo Arabako Bertsolari Txapelketako finalean.

Laudion jokatu zuen kanporaketan Manex Agirrek joan den zapatuan. Eta bera gailendu zitzaizen finalerdian jardun zuten beste bost bertsolarietara. Arabako Bertsolari Elkartetik bidalitako informazioaren arabera, Laudio finalerdian, Iñaki Viñasprek eta Manex Agirrek hamarreko txikian egindako saioa izan zen ofiziotan esanguratsuenak. Gero, ofizio guztiaren ondoren kartzelako lanak egin zituzten ber-

tsolarietara. Guztiak fin ibili ziren bakarkako saio horretan, baina aramaiotarrak bota zuten bertsoa gogoangarria izan zen, bertsozale elkartearan arabera.

Gauzak horrela, finalerdian egindakoa puntuatzeko orduan, epaimahaiak 302,5 puntu eman zizkion Manex Agirrerari, hala, aurreneko postua eskuratu zuen. Bigarrena Juan Mari Juaristi izan zen, 294,5 punturekin. Eta hirugarrena Iñaki Viñaspre, 285,5 punturekin. Hain zuzen ere, bi finalerdietako emaitzak kontuan hartuta, aipatutako hiru horiek finalerako sailkatzeko beste pun-

tu eskuratu dituzte. Horrek esan nahi du, zoritxarrez Andere Arriolabengoa ez duela lortu finalera pasatzerik, 275 puntu zituen-eta.

BIGARREREN FINALERDIA

Txapelketako finala datorren apirilaren 25ean izango da, domekan, Gasteizko Printzipal antzokian. Honako bertsolarietara jardungo dute lehian: Asier Otamendi (318,5 puntu), Oihane Perea (318,5 puntu), Manex Agirre (302,5 puntu), Ruben Sanchez (296 puntu), Juan Mari Juaristi (294,5 puntu) eta Iñaki Viñasprek (285,5 puntu).



Laudioko finalerdian Manex Agirrek aurreneko postua eskuratu zuen.

LABUR

Ez dituzte emaitza onak lortu Bañera elkarte taldeek

Nesken taldeak burumakur segitzen du, eta 0-17 galdu zuten Jesus Obreroren kontra. Mutilak, berriz, 2-4 galdu zuten Lan eta Jolas taldearen kontra. Orain, oporrak dituzte, datorren apirilaren 24ra arte.

Oraingo barikuan, beste film ezagun bat zineman

Oporretan Aramaion geratzen diren zinemazaleek *Chicago* ikusteko aukera dute barikuan, hilak 9. Rob Marshall-ek zuzendutako film horretan, besteak beste, Catherine Zeta-Jones da protagonista.

Gaztetxoendako filma emango dute domekan

Domekan, hilak 11, gaztetxo- enek dute zinemara joateko aukera. Izan ere, Disneyren *Cenicienta II* marrazki bizi- dunen filma emango dute. *Errauskine* ipuin klasikoaren jarraipena da.

Bizente Goikoetxea Errazti: 150 urte geroago, herrikideek gogoan dute

U.M.

Dagoeneko iragarrita dugu hil honetan Bizente Goikoetxea musikariaren omenezko ekitaldiak izango direla. Izan ere, hura hil zela 150 urte bete dira apirilaren 4an. Hori dela eta, geuk ere haren gainean gehiago jakin nahi, eta Jesus Mari Elexalderen liburura jo dugu.

Espainiako Polifonia Modernoaren Printzea, Espainiako Musika Sakratuko Eskolako Buruzagi eta antzerako izenekin izendatu izan dute Bizente Goikoetxea Errazti musikari aramaiarra. Izan ere, erlijioarekin lotutako musikan oinarritutako lan handiak egin zituen hark XIX. mendean. Betiere, kantu gregoriarra eta berpizkundeko polifonia oinarri moduan hartuta.

Goikoetxeak idatzitako lanen artean, ezagunena *Misererea* da; baina bestelako obra ugari ere egin zituen: *Ave Maria*, *Salve*, *Misa de Requiem*, *Ave Verum*, *O Sacrum Convivium*...

Nabarmendu beharra dago Bizente Goikoetxeak musika irakasle bakarra izan zuela: Felipe Gorriti; kontrapuntu eta fuga ikasketak egin zituen harekin. Gainerako ikasketa musikalak maisu handiak irakurtzen eta haien lanak aztertzen egin zituen. Eta oso maila altua lortu zuen. Musikagile moduan, Bizente Goikoetxearen dizipuluek beneratu egiten zuten. Nemesio Otaño aitak zera zioen haren gainean: "Goikoetxea ez da gaztea, baina gazteondako gure buruzagia eta maisua da, berarengandik ikasten dugu-eta antzinakoa zein aro modernokoa, teknika zein inspirazioa (...). Baina, batez ere adinez eta talentuz nagusia izanda idatzi duen lanaren gaztetasuna ikasten dugu".

Musikari aparta izateaz gain, Bizente Goikoetxeak zituen bestelako ezaugarrien artean, nabarmenezkoa da Aramaiori zion maitasuna. Hala, nahiz eta Lekeition bizi, Aramaioko ospitaleari eman zion bere musika lanekin irabazi zuen aurreneko dirua; eta elizari ere laguntza ederra eman zion dirutan eta materialetan.

Aramaiok, berriz, Bizente Goikoetxea hil eta gero omenaldiak egin izan dizkio behin baino gehiagotan eta haren izeneko plaka bi (elizpean eta Morron edo Portua etxean) eta monumentu bat (Bañera parkean) daude herrian ipinita. Horrez guztiaz gainera, herriko plazak haren izena darama.

GAZTARO ZAILA, ARAMAION

Baina Bizente Goikoetxeak Aramaiorekin izan zuen harremana ez zen dirudien bezain ona. Musikagilearen familiak zerikusi handia izan zuen horretan, batez ere aitak, Ignazio Goikoetxeak. Gau-



AYER Y HOY DEL VALLE DE ARAMAIONA

Aurreneko musika-lanekin irabazi zuen dirua Aramaioko ospitaleari eta elizari eman zien Bizente Goikoetxeak.

Musikagile moduan, Bizente Goikoetxearen dizipuluek beneratu egiten zuten

Bizente Goikoetxeak Aramaiorekin izan duen harremana ez da dirudien bezain ona

Valladoliden bizi zen Arabako senar-emazte baten laguntzarekin abade izatea lortu zuen

za asko konta daitezke haren gainean, baina, laburbilduz, esan genezake ez zela oso ondo konpondu Aramaioko herrikideetako askorekin. Batetik, II. Karlisaldian, alkate izatea egokitu zitzaiolako. Sasoi hartan, liberalek zein karlistek Aita Santa Kruz apaiz gudariaren burua nahi zuten. Eta alkateari agindu zioten hura ikusiz gero berehala abisumateko. Bestela, fusilatu egin-

go zuten. Gure bazterrak asko maite zituen Santa Kruz apaizak, eta ibarrera etorri zen halako batean. Hori jakin bezain laster, alkateak mezularia bidali zuen Gasteizera abisuarekin. Baina, Kurtzetan apaiz gudariaren lagunak mezulariaren zain zeuden. Harrapatu eta fusilatu egin zuten berehala. Mezularia emakumezkoa zen. Gertaera haien harira, gerra-kontseilua egin zioten

Bizente Goikoetxearen aitari. Baina, hark ibarrean zituen lagunak esker, heriotza zigorra saihestea lortu zuen. Hala, 5.000 erreale ordaindu eta libre geratu zen. Abadeek hartu zuten isunaren ardura. Eta Ignazio Goikoetxea askatu egin zuten. Baina hark berehala hanka egin zuen, zin eginez ez zuela sekula ordainduko isun hura. Bizente egin behar izan zen arduradun, eta bere

lagun baten aitari isuna ordaintzeko mailegua eskatu zion. Kontua da Ignazio Aramaiora itzuli zenean, Udalarikobratu ziola isuna eta gerora, ez zuen sekula dirua bueltatu. Horren eta gerrak eragindako gastuak ordaintzeko ezarri zituen zergen ondorioz, herritar gehienek ez zuten begi onez ikusten Ignazio Goikoetxea.

Horrek guztiak eragin handia izan zuen Bizente Goikoetxearen etorkizunean. Adibidez, 1883an, Bizente Goikoetxeak Zuzenbidearekin lotutako ikasketak amaitu ostean, Aramaioko Udaleko Idazkari izateko lanposturako aurkeztu zuen bere burua. Aldiz, sasoi zinegotziek ez zuten hura onartu eta bere kontrarioari eman zioten lanpostua. Orduantxe alde egin zuen Bizente Goikoetxeak Lekeitiora. Han, besteak beste, Resurreccion Maria de Azkue-ren lagun egin zen. Eta, era berean, handik gutxira aita hil zitzaion. Gauzak horrela, txikitatik zuen nahietako bat bete ahal izan zuen: abade izan. Valladoliden bizi zen Arabako senar-emazte baten dirulaguntzarekin lortu zuen hura. Egiluztarrek seme moduan hartu zuten eta ikasketak guztiak ordaindu zitzaizkion, Valladoliden. 1888an Katedraleko kapera maisuaren kargua lortu zuen oposizioz. Eta urtebete geroago, Lekeition aurreneko meza esan zuen. Behin hori guztiori eginda, Egiluztarrekin bizitzen segitu zuen.

LORE JOKOAK ARAMAION

Baina, oraindik ere Aramaiorekin beste nahigabe bat izan zuen Goikoetxeak. 1899ko Lore Jokoe-tan gertatu zen. Resurreccion Maria de Azkuek Aramaion egin nahi izan zituen Lore Jokoak, Bizente Goikoetxearen omenez. Hala, Lore Jokoen ospakizunetarako meza idazteko eskatu zion lagunari. Hala egin zuen Bizente Goikoetxeak. Lau ahotsetarako meza idatzi zuen. Baina, Udaleko zinegotzien ustez hura ez zen lan duina. Hala, baztertu eta Gorriti maisuaren lan bat aukeratu zuten. Hori jakitean, Azkue ia-ia bertan behera utzi zuen ospakizuna.

HIL OSTEKOA

1916ko apirilaren 9an hil zen Bizente Goikoetxea, Valladoliden, 62 urterekin. Urtebete lehenago Valladolideko katedraleko kalonje izendatu zuten. Bizente Goikoetxea hil eta urte bereko udazkenean, Udalak, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Gotzaindegiak, besteak beste, omenaldi handia egin zioten Goikoetxeari eta hura jaio zen etxean gaur egun dagoen plaka ipini zuten. Urteak geroago, haren omenezko monumentu bat eraiki zuten, Ibarrako Errotazarra zegoen lekuan. 1986an, Bañera parkea egin zutenean, hara aldatu zuten.

Ospakizunaren gainekoak

Aste Santuko oporraldiaren ostean egingo dituzte Bizente Goikoetxearen omenezko ekitaldiak. Zapatuan, hilak 24, Gasteizen. Eta egun bat geroago, domekan hilak 25, Bizente Goikoetxearen jaioterrian, Aramaion.

Omenduari dagokion moduan, ekitaldiek musikarekin lotura zuzena izango dute.

Hala, Aramaioko ekimenei dagokienez, lehenengo eta behin, meza berezia esango dute San Martin parrokiari, 12:00etan hasita; asmoa da, besteak beste, Arabako gotzainak parte hartzea meza horretan. Gero, mezaren ostean, kontzertua izango da. Sabin Salaberria musikari aramaioa-

rrak Bizente Goikoetxearen gainean berba egingo du lehenengo. Eta gero Gasteizko Araba abesbatzak, Valladolideko unibertsitateko abesbatzak eta Aramaioko kontzertua egingo dute, Bizente Goikoetxeak egindako lanetan oinarrituta.

Kontzertua bukatu eta gero, plaka zabalduko dute elizpean, gaur egun dagoen plakaren ondoan. Eta, ospakizunarekin bukatzeko, bazkaria egingo dute Iturrieta sagardotegian.

Bezperan, berriz, Gasteizen antzerako zerbaite egingo dute. Han ere Valladolideko unibertsitateko eta Gasteizko abesbatzek parte hartuko duten kontzertua antolatu dute, besteak beste.

ERRETRATUZAHARRA

Aste Santuari begira: Ostiral Santua

Datozen egunoi begira ezin bestela izan eta Aste Santua izango dugu berbagai segidan. Hain zuzen ere, Aste Santuaren barruan, Ostiral Santuko irudia ekarri dugu gure tarte honetara. 1953ko Ostiral Santua erakusten du argazkiak. Honako hauek agertzen dira, zutik, ezkerretik eskumara: Iartza, Gualberto Gorosabel, Iñaki Agiriano, Pablo Barrena, On Justino Uribesalgo, Sebero Zeziaga, Maximo Uribesalgo eta Modesto Barrutia. Eta belauniko dauden abade biak honako hauek dira, ezkerretik hasita: Domingo (*Txomin*) Agirreurreta eta Jose Luis Lazpita. Bestalde, abade taldearen albo bietan dauden gorbatahun gizonaekoak Etxebarria anaiak dira.

Argazkia ekartzeaz gain, Ostiral Santuko lehengo kontuak ere kontatu dizkigute gure berriemaileek. Esan digute zela San Juan zein San Frantzisko parrokiatan sermoiak izaten ziren, arratsalde erdi inguruan. Horren ostean, prozesio eder bat ateratzen zen San Juan parrokiatik, Erdiko kalean



behera. Portaloiraino joaten ziren, eta han tril egiten zuten San Frantziskotik zetorren beste prozesioarekin. Hala, guztiek batera Maalan zehar egiten zuten, Biteri etorbideetik berriro elizetara itzuli arte. Honako irudiak eramaten zituzten prozesio haietan:

San Juan parrokiakoek San Vicentena, Nazarenoarena eta Jesus Hilobi Santuan. Eta San Frantziskokoek Nekaneko Ama Birjinarena. Esan beharra dago, era berean, herri guztiak parte hartzen zuela ekimenean, dotore-dotore jantzita; izan ere,

ohitura izaten zen Aste Santu sasoiari jantzi berriak estreinatzea.

Argazkia: On Pablo Barrena.
Informazioa: Musakolako lagunak.
Urtea: 1953.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Bedoña auzoko kanposantua

Bedoñako kanposantua 1974an berritu zuten. Ordura arte, gaur egun gurutzea dagoen tokian kapera txiki bat zegoen. Kaperak atea, aterpea, aldarea, Jesukristoren irudia eta koadro bat zituen. 1974an berritu zuten kanposantua. Bedoñako bizilagunek orduko hiru mila pezeta jarri zituzten lanok egiteko. Gainontzekoa Arrasateko Udalak eta Diputazioak jarri zuten.



≈ 1974 Kanposantua berritzeko lanek 221.000 pezetako aurrekontua izan zuten. Kapera kendu eta gurutzea jarri zuten.



2004 Gaur egun dagoen gurutzea ez da Bedoñako ezta berria ere. Gurutze hori San Josepeko ermitan egon zen 1974ra arte.

Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Taberna Berri jatetxea

Durana 26
ARETXABALETA
Tel.943 79 20 67

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



PROFESIONAL
liberalak

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK

Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

EMUN KOOP. E.

Uriburu 9, behea. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

Otalora 16, solairuartera, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

LIA ALTUNA BEGOÑA LASAGABASTER

Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA

Zerkaosteta 17 behea
Tel.: 943 79 67 78/ Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

Edertasun gida



ILE APAINDEGI MISTOA

iaran

Zerrajera 1.
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00

BITXORI
ile apaindegia

Erdiko kale 52
Tel.: 943 79 88 32

Maatz
ILEAPAINDEGIA

Antso Abarka, 3 bajo · Musakola
ARRASATE · Tf. 943 79 58 78

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

ILEAPAINDEGIA

virginia.L

MISTOA

Lapurdi 3. Zigarrola.
ARRASATE
Tel.: 943 79 65 65

AUSART

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

ILEAPAINDEGIA

ILEA
UNISEX

Lore

Olarte 10 · ARRASATE · 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BIODERMA VALMONT